Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2025/10
Data / Fecha 2026/01/16
Akta / Acta

2025eko AZAROAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 10 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko azaroaren 27an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and. Irune Urbieta Alberdi and. Jesus Arana Gomez jn. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Iker Basurko De Miguel jn. Gervasio Gabirondo Fernandez jn. Estibaliz Agirre Uranga and. Naiara Mendivil Ayerza and. Ion Arozena Eizagirre jn. Ainara Landa Argote and. Ainhize Larramendi Larrarte and. Mikel Agirre Etxaniz jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn Eider Gurrutxaga Larrañaga and. Ander Lucas Aranceta jn. Garazi Olaizola Irureta and. Gloria Vazquez Herranz and. Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.
Ez etorria	Itziar Murua Uria and.
Idazkaria	Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzak.

GAI-ZERRENDA

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

ZARAUZKO UDALA

1.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025.

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=1

Alkate jaunak ADIERAZPEN INSTITUZIONALA irakurri du, Udalbatza osatzen duten taldeek adostua.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025

EUSKARA ZUGAN, NIGAN, GUGAN

Euskarak bide luzea egin du.
Luzeena, agian, Europa zaharrean.
Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau, hazi eta berritzen ari da.

Zein da sekretua?
Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?
Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.
Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.
Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.
Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.

Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.
Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.
Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.
Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.
Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

Horregatik, unea da.
Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorratzeko unea.
Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea.

Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.
Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.
Erabilera sustatuko duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.
Euskararen biziberritze-prozesuari segurtasuna emateko indarrak biltzeko eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.
Eta prest gaude!

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.
Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei.
Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.
Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,
Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!
Guztiontzat da.
Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.
Batzen gaituen hizkuntza bat.
Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.
Eta euskararekin, edonori.
Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.
Hazi emankorragoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurrea nola dantzatu.
Norberetik hasita egingo dugu bidea.
Guztion baitan baitago euskararen jauzia.
Zugan, nigan, gugan.

2.- 2025eko URRIAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=2

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

— 2025eko urriaren 25etik 2025eko azaroaren 21era

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=3

Segidan, Alkatetzak 2025eko urriaren 25etik 2025eko azaroaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

— **2025eko urriaren 27tik 2025eko azaroaren 17ra.**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=4

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 27tik 2025eko azaroaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

- **2025eko 3. hiruhilekoa.**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=5

Udalbatzak jakin berri du 2025eko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

- **2025eko 3. hiruhilekoa.**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=6

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2025eko hirugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

7.- 2026. URTEKO ORDENANTZA FISKALAK. BEHIN BETIKO ONESPENA

Espedientea: 2025C2100003

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251127&punto=7

Idazkariak akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	0	

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

Udalbatzarrak, 2025eko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea 2026. urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari; uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16.1 artikuluan dio: "Udal Korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributu kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta baita ere, dagozkien Ordenantza Fiskalen onespen eta aldarapenak Entitatearen iragarki taulan jarriko dira agerian hogeitahamar egunetan zehar, berauetan interesdunek espedientea aztertu ahal izango duterik eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioa aurkeztu"; 16.3 artikuluan dio: "Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetze edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz".

1.- Jendaurreko erakusketako hogeitahamar eguneko epealdia 2025eko azaroan 11an amaitu da (2026 urteko urtarrilaren 1an indarrean sartzeko Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onespena 2025eko irailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, egun berean ipini zen Udaleko iragarkien taulan), eta bi erreklamazio/iradokizun aurkeztu dira:

1.1.- F. F. S. andreak aurkeztu duen erreklamazio/iradokizuna (2025-12755 eta 2025-13290 sarrera erregistroak):

F. F. S. andreak aurkeztutako alegazioa "Udal musika eskola"ko prezio publikoen kasuan egun aplikatzen diren hobariei buruzkoa da, eta eskatzen du hobaria helduei ere aplikatzea, egun jasota dagoen moduan, familia ugarien kasuan, gurasoei ez zaielako hobaria aplikatzen; halaber dio, Udal musika eskolako prezio publikoak zehazten direnean haurrak eta helduak bereizten badira, familia ugarien hobariak arautzen direnean haur-nerabe eta gazteak aipatzen direla, adin tarterik gabe.

Adierazi behar da Udalbatzarrak 2025eko irailaren 25ean ez ziola hasierako onespena eman 8. Ordenantzaren eranskineko r) atalean jasotako "Udal musika eskola"ko prezio publikoa aldatzeari, ezta 14. Ordenantzari ere, Udal prezio publikoen hobariei buruzko araudia aldatzeari (Udalbatzarrak 2025eko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, 2025-2026 ikasturterako prezio publikoak onartu zituenean ebatzi zuen familia ugarien kasuan hobaria aplikatzea haur-nerabe eta gazteei baina ez familia ugariko gurasoei).

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16.1 artikuluan Ordenantza Fiskalen aldaketei buruzko izapideak jasotzen dituenean adierazten du hasierako onespena emandako aldaketei buruzko alegazio eta iradokizunak ebatziko direla, jendaurreko erakusketako epean aurkeztu direnean.

Horregatik guztiagatik, adierazi behar da F. F. Sanchez andreak aurkeztu duen erreklamazioa/iradokizuna ez datorrela bat, ez diola erreferentzia egiten, hasierako

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

onespena eman zaion Ordenantza Fiskalen aldaketari buruzko testuarekin, ez duela "errespetatzen" Foru Arauak jendaurrean azaldutako aldaketen eta aurkeztu den erreklamazio/iradokizunaren arteko lotura.

1.2.- U. A. I. andreak aurkeztu duen erreklamazio/iradokizuna (2025-13531 sarrera erregistroa):

U. A. I. andreak ondasun higiezinen gaineko zergaren kasuan familia ugariei aplikatzen zaien hobaria guraso bakarreko familiei ere aplikatzea eskatu du, eta ez bada posible guraso bakarreko familia guztiei aplikatzea, gutxienez bi haur edo gehiago dituzten guraso bakarreko familiei aplikatzea hobaria, orokorrean ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dutelako.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9.1. artikuluan dio: "Udalerriek, beren eskumenak erabiliz eta foru arauen naiz nazioarteko itunen esparruan, zerga onurak eman ahal izango dituzte beraiei dagozkien tributuetan, euren aurrekontuen kontura beren gain hartuz"; eta horren harira, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun higiezinen gaineko zergari buruzkoak dio: "Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte zerga kuota osoaren gainean: Kuota osoaren %90era bitarteko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean".

Egun, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen (277. BOE, 2003ko azaroaren 19koa) arabera (Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen- 291. BOE, 2007ko abenduaren 5ekoa- aldatu zuen aurreko hori), kide hauek dituztenak dira familia ugariak:

- Hiru seme-alaba edo gehiago ditu(zt)en aurreko ahaide bat edo bi, komunak izan edo ez.
- Bi seme-alaba, komunak izan ala ez, ditu(zt)en aurreko ahaide bat edo bi, seme-alabetako bat gutxienez minusbaliatua bada edo lanerako ezindua baldin badago.
- Bi seme-alaba, komunak izan ala ez dituzten bi aurreko ahaide, biak minusbaliatuak badira, edo gutxienez, haietako batek %65eko edo gehiagoko minusbaliotasun gradua baldin badu, edo lanerako ezinduak baldin badaude.
- Aita edo ama banatuak edo dibortziatuak, hiru seme-alaba edo gehiagorekin, komunak izan ala ez, nahiz eta familia unitate desberdinetan egon, betiere bere ekonomia-mendekotasunean baldin badaude, nahiz eta ez bizi ezkontza-egoitzan.
- Bi seme-alaba dituen aita edo ama, baldin eta beste gurasoa hil bada.
- Aita eta amarik ez duten (umezurtz diren) bi anai-arreba edo gehiago, tutoretza, harrera edo zaintzan daudenak eta tutorearekin, hartzailearekin edo zaintzailearekin bizi direnak, baina ez daudenak haien menpe.
- Aita eta amarik gabeko 18 urtetik gorako hiru anai-arreba umezurtz edo gehiago, edo bi anai-arreba umezurtz bietako bat minusbaliatua bada, elkarrekin bizi eta elkarren artean ekonomia-mendekotasuna dutenean.

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

ZARAUZKO UDALA

Ondorioztatzen da egun indarrean dagoen arautegiaren arabera ez daudela parekatuta familia ugariak eta guraso bakarreko familiak; horrenbestez, Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, egun familia ugariei aplikatzen zaien hobaria, soilik indarrean dagoen arautegiaren arabera "familia ugariak" direnei aplikatu ahal zaie.

(*"Guraso bakarreko" eta "familien" erregimenari buruzko araudia aldatzeko izapideak egiten ari dira, bai Diputatuen Kongresuan eta baita ere Eusko Legebiltzarrean; Diputatuen Kongresuan izapidetzen ari da Familien Lege berria, emendakin fasean dago, eta zioen azalpenean adierazten du, ondasun higiezinen gaineko zergari dagokionez, familia ugariei dagozkien onurak bi seme-alaba dituzten guraso bakarreko familietara zabaltzea aurreikusten duela.*
Era berean, Eusko Legebiltzarrean guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen dekretu-proiektu bat izapidetzen ari da; horren helburua da guraso bakarreko familien eta guraso bakarreko egoeran dauden familien errealitatea aitortzea, babes sozial, ekonomiko eta juridikoko esparru bat izateko aukera emango dien estatus propio bat emanez, beren eskubideen bermatzaile izango dena eta familia horiek gaur egun pairatzen duten pobrezia- eta gizarte-bazterketaren arriskua murrizteko gai izango dena).

2.- Halaber, Udalbatzarrak 2025eko irailaren 25ean hasierako onespena eman zion 7. Ordenantza Fiskalaren eranskineko g) ataleko 3.1 apartatuan "ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK" taulan akats bat dago 2. lerroan, "partekatutako" hitza falta da (Gazteleraz dagoen taula zuzenena da).

Akatsa duen taula horrela dago idatzita:

Kontzeptua	Gehieneko Tarifa/plaza/eguna
~~***Plazaren prezioa pertsonako***~~ ***Oinarrizko zerbitzuak banakako apartamentuak***	~~24,35~~ 24,91
Oinarrizko zerbitzuak apartamentuan ~~Partekatutako eguneko plazaren prezioa pertsonako~~	~~16,96~~ 17,35

Eta horrela behar du izan:

Kontzeptua	Gehieneko Tarifa/plaza/eguna
~~***Plazaren prezioa pertsonako***~~ ***Oinarrizko zerbitzuak banakako apartamentuak***	~~24,35~~ 24,91
Oinarrizko zerbitzuak partekatutako apartamentuan ~~Partekatutako eguneko plazaren prezioa pertsonako~~	~~16,96~~ 17,35

Antolakuntza Informazio batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz **ERABAKI DU**

Lehena.- F. F. S. andreak aurkeztu duen erreklamazio/iradokizuna izapidetzea ez onartzea, ez datorrelako bat hasierako onespena jaso zuen Ordenantza Fiskalen aldaketarako testuarekin.

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Bigarrena.-F. F. S. andreari jakinaraztea aurkeztu duen erreklamazio/iradokizuna kontuan hartuko dela 2026-2027 ikasturterako "Udal Musika eskola"ri dagokion publikoaren aldaketa izapidetzen denean.

Hirugarrena.- U. A. I. andreak aurkeztu duen erreklamazio/iradokizuna ezestea Udalerriek, Ordenantza Fiskalaren bidez, tokiko tributuen onura fiskalak soilik Foru Arau batean aurreikusita daudenean aitor ditzaketelako, eta egun, ondasun higiezinen gaineko zergari dagokionez, hobaria ez dago aurreikusita guraso bakarreko familientzat.

Laugarrena.- 7. Ordenantza Fiskalaren eranskineko g) ataleko 3.1 apartatuan "ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK" taularen 2. lerroan dagoen akatsa zuzentzea (euskarazko idazketan); taula zuzena honela egongo da idatzita:

Kontzeptua	Gehieneko Tarifa/plaza/eguna
~~*Plazaren prezioa pertsonako*~~ *Oinarrizko zerbitzuak banakako apartamentuak*	~~24,35~~ 24,91
Oinarrizko zerbitzuak partekatutako apartamentuak ~~Partekatutako eguneko plazaren prezioa pertsonako~~	~~16,96~~ 17,35

Bosgarrena.- Behin betiko onartzea Udalbatzarrak 2025eko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran indarrean dauden Ordenantza Fiskalen aldaketei emandako hasierako onespena, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko.

2026 URTEKO ORDENANTZA FISKALAK

Oro har, Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen lehen xedapen gehigarriak ezartzen duenez, toki-erakundeek emandako arauek, besteak beste, ordenantza-forma hartu ahal izango dute. Ordenantza hori izaera orokorreko xedapentzat hartuko da, iraunkorra izateko asmoz, eta gizarte-antolamenduaren helbururako eskubideak eta betebeharrak finkatzen dituzte. Horrez gain, hirigintza- eta zerga-antolamenduko arauak barne hartzen ditu.

Zerga-antolamendu horri dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 4.1 artikuluak ezartzen du zerga-arauak garatzeko erregelamenduak egiteko ahalmena Foru Aldundiari dagokiola, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak proposatuta, hargatik eragotzi gabe toki-erakundeei toki-tributuak arautzen dituzten zerga-ordenantzen inguruan dagozkien ahalmenak.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeek zergak, tasak eta prezio publikoak exijitu ahal izateko, dagokion ordenantza fiskala onartu beharko dutela, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, 15. artikuluan adierazten duen bezala, eta udal zergak ezarri, ezabatu eta antolatzeko prozedura 16. artikuluan adierazitakoa dela; halaber, aipatutako 15. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ordenantza horiek aldatzeko erabakiek ukitutako arauen idazketa berria jaso beharko dute, baita horiek onartzeko eta aplikatzen hasteko datak ere.

OGASUN ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZIAK ETA HIRIGINTZA, HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUETAKO DEPARTAMENTUAK, HEZKUNTZA

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

DEPARTAMENTUAK, GIZARTE ZERBITZUEN DEPARTAMENTUAK, UDAL KIROL DEPARTAMENTUAK, GAZTERIA DEPARTAMENTUAK ETA ERRENTAK ETA EXAKZIOAK DEPARTAMENTUAK, ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA ALDATZEKO EGIN DITUZTEN PROPOSAMENAK, ONDORIOAK 2026KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DITUZTENAK (aldatzen en den guztiak, indarrean dagoen idazketa izango du):

1. ORDENANTZA FISKALA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

I.- KARGA TASA

a) Bi karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio Ondasun Higiezin Hiritarren gaineko Zergari:

-Karga-tasa orokorra: % 0,1997-
- Lurzoru industrialetan edo hirugarren sektorekotan kokatuta dauden ondasun higiezinei aplikatuko zaien tasa, balorazio-txostenen arabera: % 0,6 (salbuespena: erabilera nagusia industriala edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutako finkak).

b) Karga-tasa hau aplikatuko zaio Ondasun Higiezin Landatarren gaineko Zergari: % 0,6843

II.- HOBARIAK

3., 4. eta 5 puntuetan (aprobetxamendu termikoko sistemak, A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak) jasotzen diren hobarien eskaera obrak amaitu ondoren aurkeztuko da, likidazioarekin eta obra-amaierako ziurtagiriarekin batera, eta eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak;

II. atal honetan araututako hobariak bateraezinak dira elkarren artean, beraz, zergaldi berean ezingo da hobari bat baino gehiago baliatu; ehuneko handiena aitortzen duena aplikatuko da, ofizioz, beti ere zergadunak eskaera egin ondoren.

3.- Zergaren kuota osoaren % 50eko hobari bat, eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinetarako, baldin eta araudiak horiek betearazi behar ez baditu. . Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

Hobaria katastroaren arabera etxebizitzarako diren elementuei bakarrik aplikatuko zaie.

Autokontsumo kolektiboaren eta energia-komunitateen kasuan, hobaria instalazioan parte hartzen duten higiezinei aplikatuko zaie, eta eskatzaileek behar bezala identifikatu beharko dituzte.

Etxebizitzarako higiezinak katastro-erreferentzia independenterik ez badu, bertan higiezin nagusiaren eranskinen bat dagoelako, hobaria ondasun higiezinen gaineko zergaren ordainagiriaren kuotaren % 80ri aplikatuko zaio.

4.- Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat duten ondasun higiezinetarako.

Hobaria katastroaren arabera etxebizitzarako diren elementuei bakarrik aplikatuko zaie.

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Etxebizitzarako higiezinak katastro-erreferentzia independenterik ez badu, bertan higiezin nagusiaren eranskinen bat dagoelako, hobaria ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotaren % 80ri aplikatuko zaio.

5.- Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria, ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatua dituzten ondasun higiezinen alde. Hobari hori aplikatuko bada, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

Hobaria katastroaren arabera garajerako/aparkalekurako diren elementuei aplikatuko da; Garaje/aparkalekurako den higiezinak ez badu katastroko erreferentzia independenterik, higiezin nagusiaren eranskin gisa agertzen delako, hobaria ondasun higiezinen gaineko zergaren ordainagiriaren kuotaren % 20ri aplikatuko zaio.

Hobaria erabilera partikularreko plaza bakarreko garajeei aplikatuko da.

III.- ERREKARGUAK

Ondasun higiezinek etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz- Zarauzko Udalak %150 errekargua eskatuko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboei exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Jarraian zerrendatzen diren kasuetan errekargurik EZ da aplikatuko:
2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Udal matrikulan alta emanda dauden jarduerekin lotutakoa; salbuespen hau ez zaie aplikatuko Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan sartutako etxebizitza turistikoei.

2. ORDENANTZA FISKALA: UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

1. ERANSKINA

III. HOBARIAK

3.- % 50eko hobaria Jarduera ekonomikoari atxikitako lokaletan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzen dituzten subjektu pasiboentzat. Hobari hori aplikatuko bada, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

4.- % 50eko hobaria, helburua ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotuta duen jarduera ekonomiko bat garatzen duten subjektu pasiboentzat. Ondorio horietarako, jarduera baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotuta dagoela ulertuko da, baldin eta jarduera ekonomikoaren xedea hondakinen balioa handitzea bada.

3. ORDENANTZA FISKALA: HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA

ERANSKINA

I. SORTZE-ALDIARI DAGOKION KOEFIZIENTEA

EPEA	KOEFIZIENTEA

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Urtebetetik behera	0,16
Urte 1	0,15
2 urte	0,15
3 urte	0,15
4 urte	0,16
5 urte	0,18
6 urte	0,20
7 urte	0,22
8 urte	0,23
9 urte	0,21
10 urte	0,16
11 urte	0,13
12 urte	0,11
13 urte	0,10
14 urte	0,10
15 urte	0,10
16 urte	0,10
17 urte	0,12
18 urte	0,16
19 urte	0,22
20 urte edo gehiago	0,28

4. ORDENANTZA FISKALA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

I.- GEHIKUNTZA KOEFIZIENTEA:

Ezarritako kuota minimoak handitzen dira, turismoei 2,6392 eta gainerako ibilgailuei 2,4750 koefiziente orokorrak aplikatuta, baina honako salbuespen hauekin:

Turismoak

12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,7320
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,7983
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak Gehikuntza koefizientea:	2,9654
20 zaldi fiskaletik gorakoak Gehikuntza koefizientea:	2,9654

Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotorrak. Gehikuntza koefizientea:	2,6770
125 cc-tik beherako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,6770
125 cc eta 250 cc arteko motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,6770
250 cc eta 500 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	2,9654
500 cc eta 1.000 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	3,0000
1.000 cc-tik gorako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	3,0000

14/1989 Foru Arauan ezarritako gutxieneko kuotetan eta goian adierazitako gehikuntza koefizienteetan oinarritutako finkatuko kuotak:

Ibilgailuaren potentzia eta mota

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

ZARAUZKO UDALA

1.Turismoak

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	48,53
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	97,07
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	167,47
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	240,15
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	327,20
20 zaldi fiskaletik gorakoak	399,91

2. Autobusak

21 plaza baino gutxiagokoak	206,17
21etik 50 plazara bitartekoak	293,63
50 plaza baino gehiagokoak	367,04

3. Kamioiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiagokoak	104,64
Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 kg bitartekoak	206,17
Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 kg bitartekoak	293,63
Karga erabilgarriko 9.999 kg baino gehiagokoak	367,04

4. Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	43,73
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	68,73
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	206,17

5. Atoi eta erdi atoiak

Karga erabilgarriko 750etik 1.000 kg bitartekoak	43,73
Karga erabilgarriko 1.000etik 2.999 kg bitartekoak	68,73
Karga erabilgarriko 2.999 kg-tik gorakoak	206,17

6. Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoreak	12,07
125 cc-rainoko motozikletak	12,07
125tik 250 cc-rainoko motozikletak	20,67
250etik 500 cc-rainoko motozikletak	45,82
500etik 1.000 cc-rainoko motozikletak	92,70
1.000 cc-tik gorako motozikletak	185,37

IV. SALBUESPENAK

4.- Eskaeran egin eta hurrengo zergaldian jarriko dira indarrean salbuespenak, desgaitasunagatiko salbuespenetan izan ezik (horrek, urte berean izango du eragina).

5. ORDENANTZA FISKALA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

IV. HOBARIAK

3.- % 80ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek irisgarritasun baldintzak hobetzen dituztenean eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten diren eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan.

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

% 80ko hobaria etxebizitza- eta/edo zuzkidura-erabilerako eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzea dakarten eraikuntzei, instalazioei edo obrei. Hobari-eskaerarekin batera, higiezinaren erabiltzaileren batek desgaitasun- edo adin-baldintza betetzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Hobari hori soilik aplikatuko zaio xede horretara bideratutako obrari dagokion kuotaren zatiari, eta interesdunak aurrekontuaren banakapena aurkeztu beharko du, hobari horrek babestutako eraikuntza, instalazio eta obren kostua arrazoiz zehaztuta".

Hobari hau ezin da aplikatu eraiki berri diren eraikinetan egindako eraikuntza, instalazio eta obretan, ez eta eraikin baten zaharberritze osoa egitea litzatekeen eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan ere

7.- % 50eko hobaria ekonomia zirkularrarekin lotura zuzena duen jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio eta obren alde. Ondorio horietarako, jarduera baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotuta dagoela ulertuko da, baldin eta jarduera ekonomikoaren xedea hondakinen balioa handitzea bada.

Hala badagokio 1., 2., 3. 4., 5. eta 6. ataletan adierazitako hobariak aplikatuta ateratako kuotari aplikatuko zaio 7. atalean aurreikusitako hobaria

6.- ORDENANTZA FISKALA: UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

a) Erabilera publikoko udal lurrak okupatzea, merkantziak, eraikuntzako materialak, edukiontziak, hesiak, euskarriak, aldamioak eta antzeko beste instalazio batzuekin

Tarifak	**€**
Materialak edo merkantziak, egunean m^2 edo frakzio bakoitzeko (***)(**)	5,29
Edukiontziak 10 m^2 edo frakzio bakoitzeko (gutxieneko frakzioa 10 m^2, aparkaleku bati dagokiona) asteko (***) (**)	22,03
Autogarabiak, plataforma jasotzaile motordunak, plataforma jasotzaile mugikorrak eta antzeko beste instalazioak, m^2 edo frakzio eta eguneko edo frakzioko (***)(**)	0,82
Hesiak, aldamioak, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m^2 edo frakzio bakoitzeko (***)(**)	0,56
Euskarriz edo zurkaitzeko beste elementuak, elementu bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko (***)(**)	0,56
Eraikuntzako garabiak, txabolak eta siloak m^2 edo frakzio bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko (***)(**)	0,56
Obrak, deskargak… egiteko lekua erreserbatzea, aparkaleku, oinezkoentzako gune, espaloi eta abarretan, 10 m^2-ko frakzioa/ orduko (gutxieneko frakzioa 10 m^2, aparkaleku bati dagokiona) (*) (**)	2,32
Obrak, deskargak... egiteko lekua erreserbatzea, aparkaleku, oinezkoentzako gune, espaloi eta abarretan, 10 m^2-ko frakzioa/eguneko (gutxieneko frakzioa 10 m^2, aparkaleku bati dagokiona) (*) (**)	18,15
Kaleak, espaloiak edo antzekoak ixtea:	
– Partziala	15,15 € /orduko

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

– Osoa	22,75 € / orduko

** Nolanahi ere, merkantziak, eraikuntzako materialak, edukiontziak, hesiak, euskarriak, aldamioak eta antzeko instalazio batzuekin udal-erabilera publikoko lurren okupazio-tasagatik ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 21,28 €-koa izango da

*** Jabari publikoaren okupazioagatik ordaindu beharreko tasa likidatu ondoren baimenaren titularrak uko egiten badio okupazioari, 21,28€-ko tasa aplikatuko da (7. Ordenantza fiskalaren m) atalean jasotakoa - *Beste Batzuk: Bide publikoa merkantzia, eraikuntzako material, edukiontzi, hesi, euskarri, aldamio eta antzeko beste instalazio batzuekin okupatzeko baimena ezeztatzea, interesdunak hala eskatuta).*

Aplikatu beharreko arauak:

2.- Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateak , baldin eta dagokion erregistroan inskribatuta badaude, eta oro har dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Lege orokorraren 11. artikuluan jasotakoak.
Elkarte eta entitateek udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteko eskaera egiten dutenean irabazi asmorik gabekoak direla eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

4.- Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen 5. Ordenantza Fiskaleko eranskineko IV. atalean aurreikusitako hobariren bat aplikatu zaion eraikuntza, instalazio edo obra batean sortzen bada tasa, ehuneko bereko hobaria aplikatuko zaio. Nolanahi ere, kasu hauetan, tasagatik ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 21,28 €-koa izango da".

b) Erabilera publikoko udal lurzoruak mahai, aulki eta antzeko beste elementu batzuekin okupatzea, irabazi asmoa dagoenean.

Tarifak	**€/ hileko edo frakzioko: Taldeak: 0 eta 1**	**€/ hileko edo frakzioko Taldeak: 2, 3 eta 4**
1 Zona, 1. denboraldian, m^2 edo frakzio bakoitzeko	4,60	4,83
1 Zona, 2. denboraldian, m^2 edo frakzio bakoitzeko	1,65	1,74
2 Zona, 1. denboraldian, m^2 edo frakzio bakoitzeko	2,29	2,41
2 Zona, 2. denboraldian, m^2 edo frakzio bakoitzeko	0,84	0,89
Erabilera publikoko udal lurzorua egitura finkoekin okupatzeagatik ordaindu beharreko tarifak:		
Egitura itxiak		
1 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo frakzioko	5,75	7,24
2 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo frakzioko	2,86	3,62
Egitura irekiak (bi isurkiko toldoak)		
1 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo frakzioko	4,60	5,81
2 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo	2,29	2,90

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

frakzioko		
Galtzadako aparkaleku gaineko instalazioa		
1 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo frakzioko	6,91	8,70
2 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m^2 edo frakzioko	3,43	4,35
Elementu bilketa bide publikoan funtzionamendu ordutegitik kanpo		
	% 15eko igoera dagokion zenbatekoarekiko	

a) **Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun-guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea.**

Tarifak	**€**
Hileko feria, egunean metro lineal bakoitzeko	4,48
Salmenta postuak herriko jaietan edo bestelako kultur ekitaldiak egiten direnean, postuko eta eguneko	43,82
Feriako atrakzioak, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioa	8,24
150 m^2-tik gorako zirkuak eta ikuskizunak, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioa	0,14
150 m^2 arteko ikuskizunak, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioa	0,19
Produktuen erakusketa, salmenta edo erakustaldiak, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioa	8,24
10 m^2-tik gorako okupazioko ekitaldi publikoak, baita politikoak ere, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioko	4,15
Artisautza Azoka: Zarauzko artisauak	0,00
Ikus-entzunezko komertzialen grabaketak eta jarduerak bide publikoan egiteko lekua erreserbatzea, aparkalekua, oinezkoentzako gune, espaloi eta abarretan, 10m^2 frakzioa / eguneko (gutxieneko frakzioa 10 m^2) (*)	18,15
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeak, eguneko eta m^2-ko, edo dagokion frakzioa	13,24

Aplikatu beharreko arauak:

a) Ordaindu beharreko gutxieneko tasa 21,28 €ko-a izango da.
b) Hileko feriari dagozkion tasetan, likidazioak sei hilez behin egingo dira.
c) Emakida bidez gauzatzen diren bide publikoko okupazioetan, kanona bertan ezarritakoa izango da.
d) Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateak , baldin eta dagokion erregistroan inskribatuta badaude, eta oro har dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Lege orokorraren 11. artikuluan jasotakoak.
   Elkarte eta entitateek udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteko eskaera egiten dutenean irabazi asmorik gabekoak direla eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela adierazi beharko dute, eta frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

e) Salbuespena aplikatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak, Estatuak, Udalak eta horien menpe dauden Erakundeek

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

ZARAUZKO UDALA

sustatutako jardueren/ekitaldien kasuan sortzen den udal jabari publikoko okupazioa.

* Eskaerak gutxienez 24 lan-orduko aurrerapenarekin ezeztatu beharko dira. Eskaera ezeztatu ezean ordaindu egin beharko da.

d) Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea igogailu, antena eta antzeko beste elementu batzuekin

Tarifak	€
Igogailuak, sarbideetako arrapalak eta antzekoak, urtean m^2 eta frakzioko	6,68
Antenak, urtean m^2 eta frakzioko	256,27

e) Ibilgailuak finken barruko aldera sartzea eta horiek aparkatzeko herri-bidean erreserbak egitea

Pasabide lizentziak:

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	122,08
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	235,01
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	352,64
30 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	470,10

Erabilera pribatu eta kolektiboko lur eta eraikinetako aparkalekuetara sartzeko espaloi edo kale-ertzetako tarteak

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	122,08
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	235,01
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	352,64
31 eta 100 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	575,45
101 eta 200 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	872,78
201 eta 300 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	1.240,71
301 eta 400 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	1.637,73
400 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	2.161,81

Merkataritza-establezimendu bat dagoen finkaren barrura sartzeko pasabide bakoitzek

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	137,24
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	264,19
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	369,42
31 eta 100 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	661,77
101 eta 200 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	1.003,70
201 eta 300 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	1.426,82
301 eta 400 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	1.883,39
400 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	2.486,08

Industria edo negozio bat dagoen finkaren barrura sartzeko pasabide bakoitzeko

Tarifak	€
125 m^2 arte	137,24

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

125,01 m²tik 350,00 m²raino	264,19
350,01 m²tik 600,00 m²raino	369,42
6000,01 m²tik 1.000,00 m²raino	528,46
1.000,01 m²tik gora	661,77

Lekua erreserbatzea:

Lekua erreserbatzea, edo frakzio bakoitza merkataritzarako erabilerarako	**Urtean / m²-ko**
Tarifa orokorra	96,14
Garraiatzeko zerbitzu publikoa eskaintzen dutenean	20,19
Autotaxiak	0,00

g) Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea elementu iraunkor ezberdinekin:

Urteko tarifak m²-ko, edo dagokion frakzioa	**€**
Edonolako mastak	83,31
Kokapen pribatuko informazio-seinaleak edo antzekoak	76,93
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabekoak	76,93

h) Udal jabetzako edo administraziopeko landa-bideen aprobetxamendu berezia

Aprobetxamendu motaren arabera:

a. Bideen erabilera egurrak garraiatzeko**:** 1,01euro x egurra (m^3 edo estereo bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.

b. Bideen erabilera beste material batzuk garraiatzeko (lurra, harria, agregatuak, hiri-hondakin solidoak...): 1,49 euro x beste materialak (m^3 bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.

i) Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea merkataritzako establezimenduekin zerikusia duten materialekin

Tarifak	**€/ urteko**
Establezimenduko salgaiak, m² edo frakzio bakoitzeko	108,44
Gainerako elementuak: publizitate-kartelak, elementu apaingarriak, hala nola jardinerak, loreontziak…, m² edo frakzio bakoitzeko.	0,00
Kutxazain automatikoak, urtekoa	400,52
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak, etab.), urtekoa	124,46

7. ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

e) Jarduera lizentziak ematea eta jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

1. ALDEZ AURRETIK BAIMENDU BEHARREKO JARDUERAK

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

ZARAUZKO UDALA

A. Jarduera lizentziak ematea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
– 300 m²-tik behera	792,76
– 301 - 1.000 m² bitarte	1761,74
– 1.001-2.500 m² bitarte	2818,80
– 2.501 m²-tik gora	3758,40
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
– 100 m²-tik behera	352,35
– 101 - 250 m² bitarte	704,69
– 251 - 500 m² bitarte	1174,51
– 501 m²-tik gora	2936,26
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	561,86
Bestelako jarduerak	
- 100 m²-tik behera	234,90
- 101 - 250 m² bitarte	469,79
- 251 - 500 m² bitarte	704,69
- 501 m²-tik gora	1879,20
Instalazio osagarriak	234,90

B. Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
– 300 m²-tik behera	792,76
– 301 - 1.000 m² bitarte	1761,74
– 1.001-2.500 m² bitarte	2818,80
–2.501 m²-tik gora	3758,40
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
– 100 m²-tik behera	352,35
– 101 - 250 m² bitarte	704,69
– 251 - 500 m² bitarte	1174,51
– 501 m²-tik gora	2936,26
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	561,86
Bestelako jarduerak	
– 100 m²-tik behera	234,90
– 101 - 250 m² bitarte	469,79
– 251 - 500 m² bitarte	704,69
– 501 m²-tik gora	1879,20
Instalazio osagarriak	234,90

2. ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATU BEHARREKO JARDUERAK
Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	1115,79
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	587,25
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
– 100 m²-tik behera	352,35
– 101 - 250 m² bitarte	704,69
– 251 - 500 m² bitarte	1174,51
– 501 m²-tik gora	2936,26

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Bestelako jarduerak	
– 100 m^2-tik behera	293,62
– 101 - 250 m^2 bitarte	587,25
– 251 – 500 m^2 bitarte	880,87
– 501 m^2-tik gora	1820,48
Instalazio osagarriak	293,62

f) Udal hilerriko zerbitzuak

Banakako zerbitzuak / Tarifak	€
Nitxo edo panteoian lurperatzea	103,85
Lurrean hobiratzeagatik	382,48
Panteoietan barrualdeko garbiketa eta gorpuzkinak berriro kokatzea	249,11
Gorpuzkinak hobitik ateratzea eta lekualdatzea	124,63
Banaka lurperatzeko nitxoa emateagatik	663,98
Hezurtegiaren kontzesioa, ixtea eta gorpuzkinak lekualdatzea barne	708,82
Kolunbario baten kontzesioa, ixtea barne	630,94
Bi kidego arteko panteoia ematea, urte bakoitzeko	166,24
Lau kidego arteko panteoia ematea, urte bakoitzeko	332,48
Sei kidego arteko panteoia ematea, urte bakoitzeko	487,62
Sei kide baino gehiago arteko panteoia ematea, urte bakoitzeko	642,79
Gorpuzkinak erraustea	336,20
Beste hilerrietatik datozen gorpuzkinak erraustea	509,23
Jabea edo jabeak hil direla-eta, hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo zati batean eskuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete igaro baino lehenago egin badira.	137,16
Jabea edo jabeak hil direla-eta, hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo zati batean eskuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete igaro eta gero egin badira	182,87

Hilerria mantentzeko zerbitzua

Tarifak	€
Panteoi-kontzesiodun bakoitzak, urteko	80,88
Nitxo edo lurreko hilobiren kontzesiodun bakoitzak, urteko	48,50
Hezurtegi edo kolunbarioren kontzesiodun bakoitzak, urteko	16,25

g) Gizarte zerbitzuak

g.1.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Tarifak	**Gehieneko tarifa €/ orduko**
Astelehenetik larunbatera	15,00
Jaiegunak	20,46

g.2.- EGUNEKO ZENTROA

Foru Aldundiak finkatutako baremoen arabera aplikatuko dira tasak.

g.3. APARTAMENTUAK

3.1.- ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

Kontzeptua	Gehieneko Tarifa / egun eta plaza
Oinarrizko zerbitzuak, banakako apartamentuak	24,91
Oinarrizko zerbitzuak, partekatutako apartamentuak	7,35

3.2.- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARTAMENTUAK:

Foru Aldundiak finkatutako baremoen arabera aplikatuko dira tasak.

3.3.- GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUAK

Tarifa	Gehieneko tarifa / hileko eta apartamentuko
Oinarrizko zerbitzuak apartamentuko	Gehiengoa 478,76 €/ hileko eta apartamentuko

3.4.- GIZARTE ZERBITZUEN BEHARRETARAKO BESTELAKO HARRERA APARTAMENTUAK

Tarifa	€
Tratu txarren biktima diren emakumeen harrera apartamentua	0,00 €/ egun eta plazako
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako harrera apartamentua	Gehiengoa 153,45 € / hileko eta gelako

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, Zarauzko Udaleko Tratu txarren biktima diren Emakumeen harrera-apartamentua arautzeko arautegia eta Gizarte larrialdiko apartamentuen arautegian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan.

3.5.- APARTAMENTUETAN JASO AHAL DIREN ZERBITZU OSAGARRIAK:

- **LAGUNTZA PERTSONALERAKO ZERBITZUA**: Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzua erregulatzen duen araudian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan (Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal araudia), eta zerbitzu horrentzat ordenantza hauetan ezarritako gehieneko tarifak).

- **OTORDU ZERBITZUA**: Kontratuaren arabera indarrean dauden prezioak jasanaraziko zaizkio erabiltzaile bakoitzari.

h) Udal merkatua

Tarifa	€
Bankuetako salmenta-postu irekiak, salmenta-postu eta hilabeteko	18,57
Salmenta-postu finkoak, m^2 edo frakzioko eta hilabeteko	18,57
Lege Zaharren enparantzako hazien salmenta-postua	40,97

i) Ibilgailuak bide publikotik erretiratzea edo bertan ibilgetzea

Ibilgailu mota	Ibilgailua erretiratzea	Ibilgailua egun edo frakzio batez gordetzea	Ibilgailua 24 orduz edo frakzio batez ibilgetzea	Ibilgailua 24 ordutik gora ibilgetzea
Bizikletak	10,59	2,34	5,28	2,36
Ziklomotorrak	17,52	4,64	16,79	4,85
Motozikletak, trizikloak, moto-	34,83	4,64	32,31	5,47

ESKU1503f094-a364-4839-b8cd-f0abb622636c

gurdiak edo antzekoak				
Turismoak, kamionetak eta antzekoak, 3.000 kg-tik beherako tona gordina	100,03	17,52	64,38	18,27
Gainontzeko ibilgailuak	69,53	17,52	80,53	26,51
3.000 eta 7.500 kg bitarteko tona gordineko kamioak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	52,18	241,22	56,13
7.500 kg-tik gorako auto eta kamioiak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	52,18	241,22	56,13

l) Zerbitzu higienikoak (Indargabetu)

m) Agiriak izapidetu eta egitea

Hirigintza lizentziak:		**€**
Aurrekomunikazioa		24,30
Partzelak eta eraikinak banantzeko / elkartzeko lizentzia		90,67
Obra lizentzia eta exekuzio aginduak (*):		
	Aurrekontua 20.000 € baino txikiagoa (*)	48,58
	Aurrekontua 20.000 eta 100.000,99 € bitartekoa (*)	161,86
	Aurrekontua 100.001 eta 500.000 € bitartekoa (*)	485,18
	Aurrekontua 500.000 €-tik gorakoa (*)	970,24
Lehen erabilera, okupazio eta erabilera aldaketarako lizentziak: (*)		
	Etxebizitza bakoitzeko(*)	32,41
	Etxebizitzarekin loturarik ez duten garaje eta trastelekuak(*)	16,28
	Familia bakarreko edo biko etxebizitzak(*)	258,81
	500 m^2-tik beherako pabilioi industrialak(*)	258,81
	Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikin bakoitzeko(*)	258,81
	500 m^2 edo gehiagoko pabilioi industrialak(*)	355,88
	Bestelako jarduerak, eraikitako m^2 bakoitzagatik	0,63
Obra lizentziak eskatu eta ukatu egiten badira, ez da tasarik aplikatuko.		
Bide publikotik ikus daitezkeen publizitate-kartelak jartzeko lizentziak:		
	12 m^2-tik beherako publizitate-kartelak	48,58
	12 eta 32 m^2 bitarteko publizitate-kartelak	105,24
